

## Nazionalitatea eta ikuspuntuak

Deia, 1978-02-14.

Estatuko egunkari ugaritan agertu dituzte Julián Marías-ek "Nación y nacionalidades" izenburuarekin idatzi duen lan bat. Eta Carlos Santamariak ilabete batzu aurretik agertutako "La estructura política del Estado" inor gutxik irakurtzeko aukera izan du, *Iglesia Viva*-n bakarrik agertu bait da.

Seinale bezala ematen dut zabalkundearen datu hau.

Lehenago ere, espainiarren iritziak hedatuagoak izandu baitira beti, euskaldunarenak baino.

Menderapenerako tresna bat da zabalkundea: zentsura bezala.

Honentxegatik gure errati, TV eta egunkarien beharra.

Eta gaur, zentsura joan zaiguneko hontan, oraindik zabalkundearen ezberdintasunak jota gauzka. Ez gara herrian bertan zabalkundea egiteko gauza oraindik, eta ez dugu, noski, Estatu osorako zabalkundearen berdintasuna lortzeko itxaropen haundirik ere.

Hemen, eta gaurkoz, *ikuspuntuak* duen garrantzia besterik ez dut adierazi nahi.

Gauzari nondik begiraten diozun, halako itxura erakutsiko dizu. Urrun edo bertatik begiratu, barrutik edo kanpotik ikusi, hain konkretoa den etxe batek ere ez dizu itxura berdina erakutsiko. Zer gertatuko da, ba, *herri* batekin, herri honen herritasun eta naziotasunaren arazoarekin? Halaxe gertatzen da Julián Marías saiaketalari eta idazle espainolak eta Carlos Santamaria matematikari, humanista eta idazle euskaldunak, bakoitzak bere ikuspuntutik, ikusten dutenarekin.

Ezin bat etorri.

Hontaz sail bat idazteko naiz hementxe, laster baina gaur bi idazle hoiek, bat espainola, bestea euskalduna, "nazionalitatea" nola sumatzen eta mugatzen dituzten erakutsi nahi dut, esenplu bezala.

Julián Marías-entzat, *nazionalitaterik* ez dago, ez baita honelako unitate sozial edo politikorik. Zergatik? Erraza: *El tesoro de la lengua castellana o española* (1611), eta *El diccionario de las Autoridades* (1734) liburuek kontzeptu hau aitutzen ez dutelako.

Hoiek dira autoridadeak: hoiek *esaten* ez dutenik, *ez da*.

Baina, hala ere, kontzeptu bezala, gaur aitutzen da. Zer da, ba, maiz erabiltzen den eta Marías jaunak esan nahi ortodoxoa ukatzen duen nazionalitate arazo hau? A! Hau, "anglicismo" bat da: "Nationality"; hau da pekatua; eta, noski, anglizismo batek egia den zerbait adierazten badu ere, ezin dezake espainol batek onartu.

Hau arrazoa!

Orduan, "fútbol"-ik ere ez dago! Baina "purismo" hontaz gainera, zerbait adierazten al du Julián Marías-ek ukatzen dion "Nacionalidad" hitz honek? Ba, bai, nonbait: John Stuart Mill-ek, *Representative Government* (1861) liburuan, zera adierazi nahi zuen: "komunitate bateko nazio bat", "nazionalitate baten sentimendua". Hau, *sub-nación* bat

izango litzake –dio Marías-ek– eta hau ez du hitz honek gazteleraz inoiz adierazi, eta gaztelerak hori adierazteko hitzik izan ez badu ere, ez al da honelakorik sentitzen? Euskaldunak, eta guk bezala katalanak eta gailegoak sentitzen dutena, eta espainolak berez sentitzen dutena, zer da ba?

A!, baina sentimendu hau, *Nación* direnak bakarrik senti dezakete nonbait, eta gu, esate baterako, ez gara, ez nazio eta ezta nazionalitate ere.

Eta, hala ere, zerbait ba gera, ba! Zer gara orduan?

Hau ez digu Julián Marías-ek guri esango, hau, honek gai hau egunkarietan aitatu aurretik, Carlos Santamariak adierazi du.

Honentzat, Estatua hor dago, noski, baina Estatua ez da Estatu bezala sortu; herrien nolabaiteko elkarte batek osatu du Estatua. Orduan, Estatua osatu duten aurretiko herriak, zer dira? Santamaria jaunak ondo erakusten duen bezala: nazioa dago Estatuaren erroan, etnologikoa edo biokulturala den errealitate bezala. Hala: *Nazioa* deitzen bazaio Estatua-ri, ba da hor lehen eta osagarri den beste "nazioa", *herria*, edo *nazionalitatea*. Errealitate hau adierazten duen hau "anglizismo" bat bada, berdin zaigu. Izenak ez du gauza egiten, gauzak egiten du izena.

*Hauzi hontan behintzat.*

*Eta nazionalitate* hitz hau defendatu behar dugu. Santamaria jaunak ondo dion bezala, terminologija ez da inoiz inoxentea, ez dute hitz bat jartzen edo ukatzen politika arazoetan, arrazoi sakonik gabe. Eta orain Julián Marías jauna "nazionalitatea" Constitución Española-ri ukatzerakoan, zera du asmoa, "región" sartzekoa, orde.

Hala, Euzkadi eta Catalunya eta Galicia, Extremadura-ko maila beran geratuko litzake!

Eta hau egia ez dela erakustea ez da zaila.

Hontarako dut pentsatua, hasieran agindutako saila.